

ANGEL OLARAN - MISIOLARIA AFRIKAN JOAN DEN 34 URTEETAN

“Afrikak baztertuta segituko du ekonomian ez delako merkatua eta seguritate aldetik ez delako munduarentzat arriskua”

■ Olaranek uste du bere aportaziorik haundienetako bat izan dela bertakoek beren buruan konfiantza gehiago izaten laguntzea, Europara begira egon gabe.

■ Etiopian, behartsuei laguntzeaz gain, desarroiloa bultzatzeko iniziatiabak jarri ditu martxan: Nekazaritza eta merkataritza eskola izan da bat, arrakasta haundia izan duena.

■ Hernaniar Bikaina izendatzeak pozeman dio, baina, ez berari eman diotela, baizik eta lan sozial eta humanitario bat eman zaiolako.


Angel Olaran Portun jaio zen 1938an eta 32 urterekin misiolari joan zen Afrikara. Tanzanian 22 urte egin zituen, eta Etiopiara 12 daramazki. “Katolikoa naiz baina, ez naiz joan katolikoak egitera” dio Olaranek. Jendea den bezala onartu eta behartsuak aurrera ateratzeko lanean daramaki ia bizitzaz osoa. Iibili den tokian etxekoa bezala hartu izan dute eta uste du ez dagoela hori baino gehiago jasotzerik. Herriko establezimenduetan 800.000 pta-tik gora bildu dira Olaranen lana bultzatzeko.

■ Zerk bultzatu zintuen misiolari joatera?

ANGEL OLARAN: 1963an erabat markatu ninduen esperientzia bat izan nuen. Ordura arte Jainkoa nolabait sinismenez edo mentalki ezagutzen nuen, eta orduan bizi egin nuen Jainkoa nere barruan. Bizipen horrek humanitate osoa ere nere barruko zerbait bezela bizitzera bultzatu ninduen, eta hor sortu zitzaidan zerbitzu bat eman edo ezagutzeko grina hori. Kolonialismoagatik eta abar, bazen jendea gure beharra zuena, edo agian guk geneukan haiena. Garbi neukan Afrikara joan nahi nuela eta Aita Zuriak orduna zen han lan egiten zuena, eta haikekin joan nintzen.

22 urte Tanzanian

■ Tanzaniara joan zinen lehenbizi. Zer topatu zenuen? Ni iritsi nintzenean Tanzanian oso errealitate soziopolitiko polita zegoen. Tanzaniak 8 urte



Angel Olaran misiolaria Kronikari emandako elkarrizketan.

zeramazkien Ingliterratik independentzatuta eta munduari erautsi nahi zioten ez zutela Europaren beharrik aurrera ateratzeko. Jabetu ziren horretarako beren arma indartsuena beren eskuak eta lana zirela, ez botere ekonomikoa. *Nierere-ren sozialismoaren* bidetik autosufizientzia ekonomikoa eta politikoa bilatzen zuten. Guak ere Elizatik hori zen bultzatu genuena eta horretarako bertako jendea formatzen aritu gin. Tanzanian pobrezian bizi ziren, baina, ez miserian. Hango produktuen prezioak, ordea, Europak erabakitzentzu ditu eta kafea

eta gauza asko orain hamar urteko erdi prezioan daude.

■ **Nola hartzen dute bertakoek misiolaria?**

Zertara zoazen alde haundia dago. Ni Jainkoaren zerbitzari bezala joan naiz eta horrek ateak zabaltzen ditu. Hortik aurrera, bertako konfiantza irabazi behar duzu. Ni ez naiz katolikoa egitera joan. Erakutsi behar diezu laguntzera zoazela, eta horretarako bertakoak diren bezala onartu behar dituzu, hizkuntza ikasi, berarekin bizi.

Ni oso ondo hartu naute, etxekoa bezala, eta piskanaka beren kulturan eta misterioan

barrena sartu naute, eta beretako bat gehiago bezala ikusten naute. Tanzanian esan zidaten ni han enterratu behar nimundutela. Hori izugarria da. Eta ebanjelioak ere haien misteriotik begiratuta beste gauza batzuk erakusten ditu, hemendik begiratuta ikusten ez direnak.

■ Zer da zuk eman diozuna Tanzaniako herriari eta *Bantu* kulturari?

Tanzanian Hezkuntza eta Sanidade aldetik, minimoak kubrituta zeuzkaten. Behar bada, nik eman diedana da beren buruan eta kulturan konfiantza gehiago izatea eta gehiago baloratzea, Europarako modeloari begira egon beharrean.

Nekazal Eskola Etiopian

■ Etiopian zabilta azken 11 urteotan.

Bai, Tigray herrian nabil. Tigray herri lehorra da eta 2.000 metroko alturan dago. Ia ez dute industriarik eta baserritar bakoitzak hektarea erdi bat lur dauka. Hala ere, Etiopia osoa bezalaxe, oraintxe ari da gerra ondoren etik ateratzen hasten. Baino, jende asko dago aurreera ateratzeko errekurtsorik ez duena, eta errekurtoak sortzeko ere modurik ez duena. Jende hori, pobrezian ez, miserian bizi da eta horiek ari gara lanean.

■ Zein proiektu konkretutan ari zarete.

400 umezurtz zaintzen ditugu eta 5 urte bitarteko 300 umeren osasunaz ere arduratzen gara; askok tuberkulosia edo ihesa dituzte, ama soltera edo guraso bakarreko ume asko dago. Gero,

horretaz aparte, 20 pertsona jarri ditugu herrian soldatarekin lanean, batez ere garbitasuneko gauzatan; 300 emakume ingururi formazio kurtsiloak eman eta kredituak eman dizkiegutera aurrera segitzeko, eta gauza bera egingo dugu beste 300ekin.

Nekazaritza eta merkataritza eskola ere jarri genuen martxan eta 300 ikasle dabilta. Hor, kultura eta komertzioaz gain, erakusten dira elektrizitatea, arotzintza, forja, zeramika, larrua lantzea, josten eta abar.

Orain dela 12 urte, gu iritsi ginean, arbol bakarra zegoen inguru hartan eta ia dena desertua zen. Orain 13 arbol daude eta leku ederra da. Aurrera begira, berriz, nekazariekin elkarlana estutu nahi dugu duten lur puska txikiari produkzio hobea ateratzeko eta haien bizimodu hobetzeko. Nekazaritza eskola proiektu pilotu bat izan da eta Etiopiako kapitaletik-eta jende asko joaten da ezagutzera.

■ Horrelako lanaz gain, zein soluzio izan lezake Afrikako egoerak.

Europako tratatuetan egin beharreko guztia oso ondo eta politikari jarria dago. Baino, ez dago borondaterik eta ez da betetzen. Gerora ere, uste dut Afrikak baztertuta segituko duela. Ekonomian ez da merkatu bat eta seguritate aldetik ez da munduarentzat arriskua.

■ Zer sentitu duzu Hernaniar Bikain izendatu zaituztenean?

Poza eta ilusio haundia eman dit, baina, ez neri emateagatik, lan sozial eta humanitario bat eman zaiolako baizik.

Telemar

Itxastele, S.L

“Plan renove”
89 eurotik.



Aldatu zure Activa
89 eurotik aurrera.

San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu.
GORA SAN JOAN

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



KixKal
Taberna
nausia 15
Egunero pintxo aukera
ederra. Asteburuuetan
pintxo beroak ere bai.



Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect




**Gogortasunaren
forma berria**

Ondo pasa San Joan jaiak

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Kurtso bukaerako dantza eta antzerki saioak, Biterin.

■ BOLA

Ibon Miner 12garren

EUSKAL Herriko txapelketan Ibon Miner izan da lehen hernaniarra. Ereñotzuko San Antonioko tiraldian, berriz, Jose Mari Etxebeste ategorrietarrak irabazi du, 37 brilarekin eta Alejandro Ugalde hernaniarra 3garren izan da. □

■ TXIRRINDULARITZA

San Joan Klasika bihar

AFIZIONATU mailako San Joan klasika bihar da Hernanin, Hernani J.J.O.O.-kek antolatuta. Irteera goizeko 10:00etan dute eta ailegarea eguerdiko 13:00 inguruan, Urbia kalean. Karrrerak 122,8 km ditu eta Xoxoka bi aldiz igo behar dute. □

Atleta Osoa proba eta palankariak gaur

ETXEBERRIKO Lagun Artea elkarrean antolatuta bi proba dira gaur. Bata Atleta osoa: korrika, bizikletan eta zaku altxatzen neurtu behar dute. Irteera 10:00etan, Urbietan. Bestea, palankariena. Goizeko 10:00etan egingo da Sagastialden. □




Plaza Berriko kiosko berria aste honetan jarri dute martxan.

Kiosko berria Plaza Berrian

PLAZA Berria arrimatzten dena konturatuko da lehengo kioskoaren lekuaren beste kiosko berri bat jarri dutela.

Azken bi aste hauetan egir dira berritzeko lanak: zaharra bota eta berria oso-osorik ekarri. Kiosko berria aurrekoan baino dezentez haundiagoa da, eta aukera gehiago ematen duena. □



Ezkiaga 5 - HERNANI
943 55 20 07



Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
Taller mekanikoa eta elektrizitatea

Urumea Autoak
Akarregi auzoa 25, 943 332274

Finantziazioa
Karrozeria

Ondo pasa San Joan jaiak
Auto Hernani
Akarregi auzoa 25, 943 552546

Preludioa ETBn gaur


EUSKAL Telebistak San Joaнетako Iragarpent Kontzertua botako du gaur gauean, euskerazko katean. Ordu eta erdi in-

guruko emanaldia izango da eta ETBk osorik botako du Preludioaren 10garren edizioa, 23:00-23:30ak aldera. □

■ ATLETISMOA

Jose Mari Garin eta Miguel Angel Garin Espainiako txapelketan

JOSE Mari Garin eta Miguel Angel Garin Espainiako atletismo txapelketan izango dira gaur eta bihar, beteranoen kategorian. Jose Mari Garin 75 urtetik gorakoan aterako da 2.000 m ostakuloen karreran eta bi helburu ditu hernaniarrak: txapelketa irabazi eta bere errekorra ontzea. Miguel Angel Garin, bezziriz, 50 urtez gorakoan aterako da zenbait probetan eta podiuma zapaltzeko esperantza du. □



Jose Mari Garin podium es-kubian, irabazitako proba batean.

Paulito Arregi Perurena "Txuria"

**Mutil zintzoa, lagun ona
auzo lanetan, lankide bikaina
malkoei ezin eutsiz, Paulito,
agurtzen zaitugu.**

Osiñagako Auzo Elkartea

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
Tel: 943 554892
- Gauze: Gil
Lasarte. Nagusia 24
Tel: 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar da adineko emakume bat zaintzeko. Interesatuek deitu telefono honetara: 943 33 29 11

ESKAINTZA BEREZIAK

LA HABANA

**HEGALDIAK Ekainak 20 22 eta 27
360 euro (Tasak aparte)**

TENERIFE

**Abuztuak 25etik Urriak 31ra
Hotela ** M/P 289 euro**

FUERTEVENTURA

**Uztailak 1etik 31arte
Hotela *** M/P 372 euro**

GRAN CANARIA

**Uztailak 1etik 22ra
Hotela ** M/P 397 euro**

**HERNANI
BIDAIAK**

hernanib@teleline.es

Urbietako 6 - 20120 HERNANI

943 33 00 49 / 943 33 01 74



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Zalakain - Olazar / Juaristi - Urrutia
2. partidua: Ezkurra - Urko / Altuna II - Etxabe
3. partidua: Elizalde-Urretabizkaia II / Bitoria-J.Etxeberria
4. partidua: Iribarren - Aizpurua II / Zeberio I - Badiola